



3. MAITASUNAREN LIRIKA: TROBALARIEN OLERKIAK ETA DOLCE STIL NUOVO. PETRARKAREN KANTUTEGIAK EKARRITAKO BERRIKUNTZA

Hasieran, literatura beti agertu izan da bertsoan paratua. Horrek erraztu egiten zituen kantua eta errezitazioa, ezinbestekoa dena obra bat entzule eskolagabeen artean zabaltzeko. Beraz, Erdi Aroan bi generoak bertsoan idatziko dira.

Erdi Aroko tarte zabalenean, kultura idatzia klerikoen esku egon zen batez ere, eta latin hutsez idazten zen. Herri xeheak, ordea, Europako hizkuntza berriez kantatzen zituen bere abesti xumeak, gai nagusizat jaia, maitasuna eta lana zituela. Poesia horren adibide gehienak galduta daude, egileak herrikoak eta ezezagunak zirelako. Dena den, aleren bat edo beste iritsi zaigu, batez ere Iberiar penintsulan.

Poesia probentzala edo trobadore poesia

Herri hizkuntzei dagokienez, maila jasoko poesia lirikoa probentzeraz egin zen lehenbizikoz. Eskola hori Frantziako hegoaldean sortu zen XII. mendearen hasieran, eta bere eraginez antzeko literatura agertu zen Europako beste hizkuntza batzuetan, batez ere frantsesez, katalanez, galego-portuguesez (*cantigas*) eta alemaneraz (*minnesang*).

Konposizio berri horiek berezko ezaugarri nabarmenak zituzten. Egileak, **trobadoreak**, ezagunak ziren, eta musikaz lagunduta zabaltzen zituzten. Juglarea baino jantziagoak eta itzal handiagokoak ziren, baina ez ziren klerikoak. Haien artean nobleak zein plebeioak zeuden. Trobadoreen entzule gehienak aristokratak ziren, gero eta finagoak eta gerrarako grina gutxiagokoak.



Trobadoreak eta musikariak

Trobadore poesian garrantzi handiko kontzeptu bat dago: **maitasun gortesaua** (adeitsua), konposizioen gai bakarra osatuko duena eta trobadore poesia (lirika erromatarraren osten) Mendebaldeko lehen mugimendu subjektibo eta orokorra bihurtzen duena.

Defini dezagun "maitasun gortesaua": izenak dioenez, garai hartako giza-portaeraren eredu den gortean sortzen da. Maitasun gortesauak gorteko harremanak amodiozko mailara ekarri nahi ditu, hau da, Jaun feudala bada gortean agintzen duena eta basailuen jabea dena, hartara andre maitatuak bere basailu den maitalearen jabe eta nagusi izan behar du.

Bestalde, maitasun gortesauan maitatuak emakume ezkontua izan behar du; hortaz, maitasun gortesaua maitasun adultero bihurtzen da; Erdi Aroan, baina, ezkontzea ez da elkar maite duten biren arteko hautu librea, itun soziala baino; beraz, maitasun gortesaua benetako maitasuna bihurtuko da, amodio hutsaren benetako fruitua.

Gaiei dagokienez, ondoko azpigerenak bereizten ziren:

- **Canso**: maitasun poesia, literatur maila jasokoa.
- **Sirventes**: poesia satirikoa, elkar zirikatzekoa edo kritika moralak egitekoa.
- **Pastorela**: zaldun baten eta neska artzain eder baten elkar topatzea kontatzen du.
- **Planh**: hileta-eresia.
- **Tenso**: bi poetaren arteko eztabaida.

Italiako Erdi Aroko poesia handia

Italiako literaturak Europako Erdi Aroko kulturari eman zizkion hiru idazle nagusiek Errenazimentuko espiritu berria iragarri zuten jada. Hiru idazle horietako bi poetak ziren:

Dantek amaitzen ari zen garai osoa sartu zuen bere obra erraldoian; **Petrarkak**, berriz, poetika modernoaren sentikortasuna inauguratu zuen. Bestalde, **Boccacciok** Erdi Aroko genero baloratuenetako bat, narrazio laburra, alegia, bere puntu gorenera eraman zuen.

a) Italiako poesiaren jatorriak

Danteren aurretik, bazegoen Italian tradizio poetiko luzea:

- **Poesia erlijioso frantziskotarra: San Frantzisko Asiskoaren *Cántico de las criaturas*** (1182-1226) eta **Iacopone da Todi** (1230-1306).
- **Siziliako eskola:** XIII. mendearen lehenengo erdiaren Gorteko poesia, trobadoreen estilo atseginareen eragin handia zuena.
- **Dolce stil nuovo**, XIII. mendeko bigarren erdiaren Florentziako eskola poetikoa, eskema atsegina analisi psikologiko handiago baten bidez gainditu zuena: **Guido Guinizelli** (1235-1276) eta **Guido Cavalcanti** (1250-1300).

b) Dante eta *Divina Comedia* (Komedia jainkotiarra)

Florentziako **Dante Alighierik** (1265-1321) bere garaiko borroka poliikoetan hartu zuen parte era aktiboan eta horregatik, bere jaioterritik erbesteratu egin zuten. Italiako unitatearen defendatzaile sutua izan zen. Latinez hainbat tratatu idatzi zuen literatura, politika edo filosofiari buruz.

Italieraz maitasunezko poesia (*Rime*) eta *Vita nuova* idatzi zituen. Azken lan horretan poema batzuk tartekatu arren, prosaz adierazi zuen Beatrizenganako maitasuna, haurtzaroan ezagututako neska eta oso gazte hil zena. Bere estiloarengatik eta ideiarengatik (Beatriz *donna angelicata* da), lan horiek *dolce stil nuovo*-ren barruan sartzen dira.

1307 eta 1321aren artean idatzitako *Divina Comedia* garai guztietako maisu lanetako bat da. Poemaren hiru zatiak hiruko kateatuetan idatzita daude eta horietan, Dantek hilobiaz haraindiko mundura egindako bidaiak alegorikoa kontatzen du. Infernua eta purgatorioan Virgilio poeta du gidari eta paradisuari, aldiz, Beatriz maitea.

Bidetik topatzen dituen pertsona zigortu edo beatifikatu bidez, Dantek gizadiaren historia laburtu eta Erdi Aroan munduari buruz zegoen ikuspegia adierazi zuen, bere arazo sozial, politiko eta erlijiosoekin. Horrez gain, ezin du ezkutatu bere hurkoen dramen aurrean sentitzen duen zirrara, Errenazimentuko humanismoa aurreratu zuena.




c) Petrarka: humanismoa eta poesia



Toskanako **Francesco Petrarka** idazlea (1304-1374) gizon modernoa da, bere kezka intelektuala dela eta. Bere bizitzaren ezaugarri nagusia Frantzia eta Italiaren artean egin zituen bidaiak dira. 1340an erramuz koroatu zuten Erroman, poeta gisa.

Humanismoaren aitzat hartzen da. Humanismoa Antzinaro berreskuratzeko ahaleginean oinarritutako mugimendu kulturala izan zen eta horixe bera izan zen

Errenazimentuko oinarri ideologikoa. Antzinaro Erromako idazleak sakon aztertu zituen eta liburu asko idatzi zituen latinez: tratatu filosofikoak eta erlijiosoak, lan historikoak eta poesia lirikoa eta epikoa.



Hala ere, askoz garrantzitsuagoa da italiaraz idatzitako lana: bere *Kantutegia*-n Laurari zuzendutako maitasunezko poesiak bildu eta antolatu zituen. Danteri Beatrizekin gertatu zitzaion moduan, Petrarkari ere Lauragatik sentitzen zuen ezinezko maitasuna zapuztu egin zitzaion, neska gazterik hil baitzen. Sentimenduen barnean ikertzeko sakontasunak eta bere estiloaren perfekzio formal eta metrikoak eragin handia izan zuten Europako geroko lirikan, batez ere Errenazimentukoan.

MAITASUNAREN LIRIKA

1. Trobadore poesian zeintzuk dira azpigeneroak etaa zertaz dihardute.

2. Definitu "maitasun adeitsua".

3. Zeintzuk dira Italiako poesiaren jatorriak:

4. Idatzi zerbait autore hauei buruz:

- Dante
- Petrarka

5. Zer da **Divina Comedia**?


6. Zer da *Humanismoa*?

7. Zer da ondoko marrazki hau?

BEATRICE-N AGURRA

(Dante Alighieri)

Nire maiteak agur egitean
mingain oro dardaraz
isildurik uzten ditu;
begirik adi ez dakus aurrean.
Hain zuhur dagir, hain eme lirainaz!
Maitekor joan doa
eta gehitzen da bere ohorea.
Apaltasunez daroa jantzia,
eta dirudi mirari gelgarria
goiko zerutik lurrera jaitsia.
Dastatu ez duenak
ulertu ezin dezakeen ezta
demaio begietatik
bihotz erdira so dagionari,
dagokion maite gogo guztiari!



Maitasunez beterik
espainetatik arnasa guria
ugari dariola
gogoari: «Hitz egizu»,
dirudi diotsola.

(Euzkadi, 1930, epaila, 27) moldatuta.

Joan Perez Lazarragaren eskuizkribua

Lazarragarren leinukoa zen, hots, arabar noblezia txikiko familia ezaguneko. Gebaratarren itzalean garatu zen familia, eta, Oii.atiko jatorrizko oinetxetik abiatuta, erroak ondo finkatuak zituen Arabako ekialdeko lautadan 1439az geroztik.

Gurasoak, Pedro Perez Lazarragako eta Elena Saez Erdoña, 1546eko urriaren 7an ezkondu ziren, eta aitaren bigarren ezkontzako bost seme-alabetatik lehenengoa izan zen. 1547aren bukaeran edo 1548aren hasieran jaio bide zen, ziur aski Erdoñan. Lehen haurtzarara Ozetan egin zuen, eta gurasoak 1562 inguruan aldatu ziren Erdoñara.

Katalina Glez. de Langarikarekin ezkondu zen, 1575ean, Arriolan. Katalinaren izeba, Ana Glez. de Langarika, idazlearen osabarekin ezkondua zen, baina seme-alabarik gabe, eta, dirudienez, horien ondoretzari bidea emateko atondu zen loben arteko ezkontza. Ziur aski, orduan hartu zuen idazleak Larreko dorrearen ondoretza. Bi seme-alaba



izan zituzten, Agustin eta Maria; semea izan zen Lazarraga dorreko hurrengo jauna. Joan Perez Lazarragak kargu publikoak izan zituen bere eskualdean: Erdoñako elizako maiordomo (1572), Barrundiako Ermandadeko alkate eta beste batzuk. 1605eko apirilaren 11n eman zuen testamentua gaixorik zela, eta biharamunean hil zen.

Eskuizkribua:

Silbiak, bada, ezauturik Silberoen borondatea, prometidu eutsan eze biharamunean sinfalta Sirena eroango leutsala bere aposentura. Hainbat atsegin Silberok hartu eben Silbiak egin eutsan promeseaz, eze kasi eukan gatx guztia kendu jakan.

Biharamun goixean joan zidin Silbia Sirena bisitatzen eta osteango beste berben artean egion erregutu legiola konpainia Silbero egoan aposentura joaten, eta Sirenak esan eutsan eze atsegin lebela, zeintzuk alkarri eskuetarik eustela joan zirean Silberoen kamarara, non sar zitezenean utra kortesmente Silberori berba egin eutsaen, zeinak ahal egian kortesia eta mesura guztiaz saludadu zituan eta eskatu zidin arpa bat, zeina utra dultzero joiten hasi zan, manera honetan kantaetan ebela:

Donzeilea, zegati zaoz
enegaz enojadurik,
zurekin ene aitasuna
horrela ahantzi jakinik?

Donzeilatxo linda damea,
flordelisea zara zu;
ene penea dakusazun gero
arren berba bat esazu.

Ikusirik Sirenak Silberoren platikea, hartu eben Silberok eskuetan eukan arpea, zeina joiten ebela erantzun egion manera honetan:

Jentil hombre penadua,
enegaiti kautibua,
zure llantu dolorosook
emaiten deustae kontentua.

(...) Silberok:

Esperanzeau galdu jat,
gutziz ez arren, parte bat;
neure laztanaen amorearren
egin gura dot negar bat.

Ai, ene desdixadua,
gaitxez rodeatua!
Kontentu uste neben orduan,
oi, zatort deskontentua!

Ene bihotz penadua,
egun gaixki kuradua,
egun askotan beharko dozu
zeure aldean medikua.

(...) Silberok:

Donzeilatxo, linda damea,
flordelisea zara zu;

nik zuri on dereitzut baina
zuk ni erruki ez nauzu.
amaren seme bakotxa naiz ta,
arren, ondo har naroizu;
ama enea seme bagea
zuk ifiniko al dozu?
Ama eneaen seme bageaz,
oi, zuk zer probetxu dozu?
Lau urtebete euren gabakin
zeure oinetan naukazu;
ene laztana, ene lindea,
nahi dozuna egizu.
Ene laztana, ni hilagaz
zuk probetxurik badozu,
ori gerriko dageau eta
bihozeraino indazu.

Ene laztana heriotzea
sentizen ez dot bapere,
asegin eta deskansu baxe
zu bazarade serbizen.
Bada bere nai ez neuke
mundu guztiagaitirren
zuregaz ene sekreto
deskubri lidin bapere.

- 1.- Azaldu testuak dioena zeure hitzetan:
- 2.- Ze ezaugarri aurkitzen dizkiozu trobalarien estiloarekin erkatuta?